

MUNDUKO SOZIOINGUISTIKAREN LEIHOA

# Hizkuntza gutxituen bizi-indarra neurtzen duten eskalak aztertzen: euskararen eskala bat osatzeko proposamenak

**Beñat Garaio**

*Hitz Adina Mintzo* — *Hizkuntza Gutxituak Ezagutzeko zikloa*  
benyat@garaio.eus

Sarrera-data: 2015-11-03 / Onartze-data: 2015-11-30

**Laburpena.** Munduko hainbat hizkuntza hilzorian direnez, eta beste hainbeste egoera gutxituan daudenez, hainbat hiztun eta eragilek egoera hori iraultzeko hamaika ekimen jarri dituzte abian. Ekimen horiek eraginkorrak izan daitezten, ordea, egoeraren azterketa zehatza egitea behar-beharrezkoa da eta horretarako sortu dira hainbat erakundek erabiltzen dituzten hizkuntzen bizi-indarra neurtzeko eskalak. Euskararen eragileak adierazle sistema propioa sortu nahi duten honetan, nazioarteko eskala horiek azaldu eta era kritikoa aztertu dira, euren alde on eta txarrekin. Helburuak bi dira, 1) adierazle sistema berri honi hainbat aldagai proposatzea, denon artean egindako lanarekin gure hizkuntzak biziberritze prozesu luze eta malkartsu honetan pausu luze eta indartsuagoak ematen jarraitu dezan, eta 2) munduko eskala horiek nolakoak diren ezagutzea. • **Hitz gakoak:** *eskalak, bizi-indarra, hizkuntza gutxituak, hizkuntza-galera, hizkuntza-biziberritzea.*

**Abstract.** As many of the world's languages are dying out, and as many others are in a minority situation, many speakers and players have started a whole host of initiatives designed to change this situation. However, to make these initiatives effective, it is essential to analyse the situation in detail and to do this, scales used by different institutions to measure the vigour of languages have been created. Now that the players of the Basque language are keen to create their own indicator system, these international scales have been explained and examined from a critical perspective with respect to their good and bad sides. The aim is twofold: 1) to come up with a number of variables for this new indicator system, so that with the work carried out by everyone, our language can continue taking longer, stronger steps in this long, difficult process, and 2) to find out what these world scales are like. • **Key words:** *scales, vigour, minority languages, language loss, language revival.*

## 1. SARRERA


Munduko biztanleriaren %96ak munduko hizkuntzen %4 hitz egin du, eta are gehiago, munduko hizkuntzen %96 munduko biztanleriaren %3k soilik hitz egiten dute (Bernard 1996: 142 in UNESCO, 2003:1). Horrenbestez, munduko hizkuntza aniztasunaren pisu ia osoa hitzun gutxi batzuek dute bere gain. Hau ez da betidanik horrela izan, munduko hizkuntza gehienak hizkuntza-galera prozesuan murgilduta baitaude.

Batzuen ustez beranduegi den arren, hizkuntza-galera eta hizkuntzen heriotza hainbat ikerlari, soziolinguista, hizkuntzalari, hizkuntza-planifikatzaile, irakasle eta beste hainbat eragilek jorratu dute ikuspegi ezberdinei helduz, adibidez, hizkuntza-galeraren kausak, prozesuak, sintomak, ondorioak eta abar (Lewis and Simmons, 2010:102).

Egoera honi aurre egin nahirik eta hizkuntza gutxitu horiek biziberritzeko asmoz, hainbat eragile, erakunde eta gizabanakok egitasmo aktiboak jarri dituzte abian (Dwyer, 2011:1). Dena den, egitasmo horiek diseinatzeko orduan eta arrakasta maila minimo bat bermatze aldera, behar-beharrezkoa da hizkuntzaren egoeraren diagnostiko zehatza egitea, ekimen horiek ahalik eta hobekien doitze aldera (ibid.).

Hain zuzen ere, horretarako sortu dira dozena bat eskala, aldagai soziolinguistiko kualitatiboen bitartez hizkuntza edo aldaera jakin bat ebaluatzeko asmoz (ibid.).

### 1. irudia. Hizkuntzen biziberritzearen diseinu prozesua.



Iturria: Obiero, 2010:222. Egileak moldatua.

**Munduko biztanleriaren %96ak munduko hizkuntzen %4 hitz egin du, eta are gehiago, munduko hizkuntzen %96 munduko biztanleriaren %3k soilik hitz egiten dute munduko hizkuntza gehienak hizkuntza-galera prozesuan murgilduta baitaude.**

**Eskalak eta adierazle sistemak estu lotuta daudenez, honako lan honek mundu mailan erabiltzen diren eskalak azaldu nahi ditu, era kritikoan aztertu ere, eta bakoitzak duen alde on eta txarrak partekatu nahiko lituzke.**

Baina eskala horiek sortzea ez da erraza, izan ere, Sallabank-ek (2014:2) dioen moduan, zer neurtu behar dugu eta nola? UNESCO-k ere (2003:7), bere eskala argitaratu zuen dokumentuan, argi utzi zuen aldagai bakar batekin ez zela nahikoa hizkuntza baten bizi-indarra neurtzeko. Izan ere, hiztun-komunitateak konplexuak eta anitzak dira, eta berez erraza ematen duen aldagai bat, esaterako, hiztun-kopurua, neurtzeko zaila izan daiteke, beherago ikusiko dugun moduan.

Euskararen egoerara etorritz, hainbat erakundek abian dituzten neurketek informazio erabilgarria eskaintzen digute, eta eskalarik ez dugun arren, argitalpen horiekin gure hizkuntzaren egoera modu nahiko zehatzean ezagutu dezakegu. Dena dela, Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren agendan euskararen egoera neurtuko duen berariazko adierazle sistema baten premia azaldu da (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2013). Antza, adierazle sistema hori osatze prozesuan dago eta denbora-tarte bat behar izango da argitaratzeko (Aizpurua, komunikazio pertsonala - k.p.), baina interesgarria izango da lan horren emaitza ikustea. Zer esanik ez eman ditzakeen fruituak.

Eskalak eta adierazle sistemak estu lotuta daudenez, honako lan honek mundu mailan erabiltzen diren eskalak azaldu nahi ditu, era kritikoan aztertu ere, eta bakoitzak duen alde on eta txarrak partekatu nahiko lituzke, hartara irakurleak gai honen inguruko ezagutza zehatzagoa izan dezan. Bukatzeko, eskalei egin zaizkien gomendio batzuk mahai gaineratuko dira, baita egileak berak komenigarriak ikusten dituen al-daketa batzuk ere. Ahal den neurrian, orain arteko eskalak hobetu ahal izateko oinarriak eraikiko dira, azkenik.

## **2. NAZIOARTEAN ERABILI IZAN DIREN ESKALAK ETA EUREN AZTERKETA KRITIKOA**

### **I**

#### **2.1 UNESCOren eskala eta haren itzaletik sortutakoak**

##### *2.1.1 UNESCOren eskala*

###### **2.1.1.1 UNESCOren eskalaren ezaugarriak**


Erakunde honek berak abian jarritako “Arriskuan dauden munduko hizkuntzen Atlas” hornitzeko sortu zen eskala hau, 2003an ad hoc sortutako aditu talde baten lana dela medio.

Ordura arte argitaratutako hainbat lanen ekarpenak uztartuta sortu

zuten eskala hau, nahiz eta momentuan bertan berregituratze prozesuan den, Grinevald taldeko partaideak Sallabank-i esan zion moduan.

9 faktore proposatu zituen aditu talde honek eta faktore bakoitza 0tik 5era puntuat liteke.

**2. irudia. Hizkuntzen bizi-indarrean eragiten duten faktoreak.**



Iturria: UNESCO, s.d. Egileak moldatua.

Honako hauek dira aipatu faktore horiek:

- 1. faktorea: Belaunaldien arteko transmisioa

Fishman-ek faktore honi ematen dion garrantzitik dator UNESCOren hautu hau, baina UNESCOk hainbat maila bereizten ditu.

**1. taula. Belaunaldien arteko transmisioa zehazteko mailak.**

Arrisku maila	Maila	Hiztun mota
Seguru	5	Adin guztietako pertsonak mintzo dira
Egonkorra baina arriskuan	5-	Hizkuntza esparru eta adin-tarte guztietan erabiltzen da, baina beste hizkuntzaren batek funtzioak kentzen dizkio
Ez-seguru	4	Hizkuntza eremu guztietan erabiltzen dute ume batzuek; ume guztiak erabiltzen dute eremu batzuetan
Arrisku argian	3	Gurasoek eta horiek baino nagusiagoek erabiltzen dute hizkuntza
Arrisku larrian	2	Aiton-amonek eta horiek baino nagusiagoek erabiltzen dute hizkuntza
Arrisku kritikoan	1	Oso pertsona gutxi erabiltzen dute hizkuntza, bereziki birraitonen adinekoek
Iraungita	0	Ez dago hiztunik

Iturria: Unesco, 2003:7. Egileak moldatuta.

- 2. faktorea: Hiztun kopuru absolutua

Eskala azaltzen duen dokumentuan (UNESCO, 2003:8) esaten da hiztun kopuru txiki batek hizkuntza horren iraupena kolokan jartzen duela.

- 3. faktorea: Hiztun kopuru erlatiboa biztanlego osoarekiko

## 2. taula. Hiztun kopuru erlatiboa faktorea zehazteko irizpideak.

Arrisku maila	Maila	Hiztun kopuruaren ehunekoa, komunitatearen biztanleriaren kopuruarekin alderatuta
Seguru	5	Guztiak hitz egiten dute hizkuntza
Ez-seguru	4	la guztiak hitz egiten dute hizkuntza
Arrisku argian	3	Gehiengo batek hitz egiten du hizkuntza
Arrisku larrian	2	Gutxiengo batek hitz egiten du hizkuntza
Arrisku kritikoan	1	Gutxi batzuek hitz egiten dute hizkuntza
Iraungita	0	Inork ez du hitz egiten hizkuntza

Iturria: Unesco, 2003:9. Egileak moldatuta.

- 4. faktorea: Galera hizkuntzen erabilera eremuetan

## 3. taula. Erabilera-eremuak aintzat hartzen dituen faktorea azaltzen duen irizpidea.

Arrisku maila	Maila	Hizkuntzaren erabilera-eremuen bilakaera
Erabilera unibertsala	5	Hizkuntza erabilera-eremu guztietan eta funtzio guztietarako erabiltzen da
Berdintasun eleanitza	4	Bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen dira eremu guztietan eta funtzio guztietarako
Desorekan dauden erabilera-eremuak	3	Hizkuntza etxeko erabilera eremuetan erabiltzen da eta funtzio askotarako, baina hizkuntza menderatzailea bestearen eremuetan sartzen hasten da, baita etxean ere
Erabilera mugatuak edo formalak	2	Hizkuntza erabilera-eremu gutxi batzuetan eta hainbat funtzioetarako erabiltzen da
Oso mugatutako erabilera-eremuak	1	Hizkuntza zeharo mugatutako erabilera-eremu batzuetan eta funtzio gutxi batzuetarako erabiltzen da
Iraungita	0	Hizkuntza ez da erabilera-eremu bakar batean ere erabiltzen, ezta funtzio baterako ere

Iturria: Unesco, 2003:10. Egileak moldatuta.

- 5. faktorea: Eremu berriei eta komunikabideei erantzuna

**4. taula. Erabilera-eremu berriei eta komunikabideei erantzuna faktorea azaltzen duen azalpena.**

Arrisku maila	Maila	Erabilera-eremu berriak eta komunikabideak onartu ditu arriskuan dagoen hizkuntzak
Dinamikoa	5	Hizkuntza erabilera-eremu berri guztietan erabiltzen da
Trinkoa	4	Hizkuntza erabilera-eremu berri ia-guztietan erabiltzen da
Hartzailea	3	Hizkuntza erabilera-eremu berri askotan erabiltzen da
Hala-holakoa	2	Hizkuntza hainbat erabilera-eremu berrietan erabiltzen da
Gutxienekoa	1	Hizkuntza erabilera-eremu berri gutxi batzuetan erabiltzen da

Iturria: Unesco, 2003:11. Egileak moldatuta.

- 6. faktorea: Hizkuntza irakasteko eta alfabetatzeko materialen erabilgarritasuna

**5. taula. Irakasteko materiala neurtzeko irizpideak.**

Arrisku-maila	Idatzitako materialen eskuragarritasuna
5	Finkatutako ortografia dago, baita gramatika, hiztegi, testu, literatura eta eguneko komunikabideen bitartez egindako alfabetatzea ere. Hizkuntza idatzi egiten da administrazio eta hezkuntzan.
4	Idatzitako materialak egon badaude, eta eskolan, umeak hizkuntza horretan alfabetatzen ari dira. Hizkuntza horretan ez da idazten administrazioan.
3	Idatzitako materialak egon badaude, eta umeek idatzizko formen berri dute eskoletan. Idatzitako materialen bidezko alfabetatzea ez da sustatzen.
2	Idatzitako materialak egon badaude, baina komunitate horretako gutxi batzuentzako daude soilik eskuragarri; besteentzako, materialek garrantzia sinbolikoa izan dezakete. Hizkuntzaren bidez egindako alfabetatzea ez da eskolako kurrikulumaren parte.
1	Ortografia praktikoa ezaguna da komunitatearentzako eta zenbait material idatzia izaten ari da.

Iturria: Unesco, 2003:12. Egileak moldatuta.

- 7. faktorea: Gobernu eta erakundeen hizkuntza jarrerak eta politikak, estatus ofiziala eta erabilera barne

**6. taula. Gobernu eta erakundeen jarrerak aztertzeko irizpideak.**

Sostengu maila	Maila	Hizkuntzei erakundeek eskainitako babesa
Sostengu berdina	5	Hizkuntza guztiak dira babestuak
Sostengu berezitua	4	Gutxiengo hizkuntzak babestuta daude, bereziki erabilera-eremu pribatuetan. Hizkuntzaren erabilera prestigioa du
Asimilazio pasiboa	3	Ez dago gutxiengo hizkuntzentzako politika jakinik. Hizkuntza menperatzailea da nagusi erabilera-eremu publikoan
Asimilazio aktiboa	2	Gobernuak hizkuntza menderatzailea asimilatzea bideratzen du. Ez dago babesik gutxiengo hizkuntzentzako
Behartutako asimilazioa	1	Hizkuntza menperatzailea da hizkuntza ofizial bakarra, hizkuntza ez-menperatzaileak ez onartuta, ez babestuak dauden bitartean
Debekua	0	Gutxiengo hizkuntzak debekatuta daude.

Iturria: Unesco, 2003:14. Egileak moldatuta.

- 8. faktorea: Komunitateko partaideen jarrerak euren hizkuntzarekiko

**7. taula. Komunitateko partaideen jarrerak aztertzeko taula.**

Maila	Komunitateko partaideen jarrerak euren hizkuntzarekiko
5	Partaide guztiak baloratzen dute euren hizkuntza eta sustatua izan dadin desio dute
4	Partaide gehienek hizkuntza horren mantentzea sostengatzen dute
3	Hainbat partaidek hizkuntza horren mantentzea sostengatzen dute; batzuei ez die axola edota hizkuntza horren galera sostengatzen dute
2	Partaide batzuek hizkuntza horren mantentzea sostengatzen dute; batzuei ez die axola edota hizkuntza horren galera sostengatzen dute
1	Partaide gutxi batzuek hizkuntza horren mantentzea sostengatzen dute; batzuei ez die axola edota hizkuntza horren galera sostengatzen dute
0	Inori ez dio axola hizkuntza galtzen bada, guztiak hizkuntza menderatzailea erabiltzea nahiago dute

Iturria: Unesco, 2003:15. Egileak moldatuta.

- 9. faktorea: Hizkuntza-dokumentazio mota eta kalitatea

**8. taula. Hizkuntzaren inguruko dagoen dokumentazioa neurtzeko irizpideak.**

Dokumentazioaren ezaugarriak	Mai la	Hizkuntzaren dokumentazioa
Superlatiboa	5	Gramatika-liburu eta hiztegi asko daude, testu luzeak eta etengabeko hizkuntza-material oldea. Transkribatutako kalitate oneko audio eta bideo material ugari dago.
Ona	4	Gramatika-liburu on bat dago eta gramatika-liburu, hiztegi, testu, literatura eta noizean behin eguneratutako komunikabide kopuru jakin bat; transkribatutako kalitate oneko audio eta bideo material zenbait dago
Neurrizkoa	3	Gramatika-liburu kopuru egokia egon liteke, baita hiztegi, testu eta literatura ere, baina ez dago eguneroko komunikabiderik; kalitate ezberdineko audio eta bideoak daude, batzuk transkripzioekin
Mugatua	2	Hizkuntzalaritza-ikerketarako mugatua izan litekeen gramatika testu, hitz-zerrenda eta testu batzuk daude erabilgarri. Kalitate ezberdineko audio eta bideoak daude, transkripzioekin edo ez
Desegokia	1	Gramatika testu, hitz-zerrenda eta testu batzuk daude erabilgarri soilik. Ez dago audio eta bideo fitxategirik
Dokumentatu gabekoa	0	Ez dago materialik

**Hizkuntza txikientzat in situ egiteko eskala moduan prestatu zen eta hortik datoz bere hutsune handienak, izan ere, hizkuntza guztiei aplikatzeko muga asko ditu eskala.**

**Iturria: Unesco, 2003:16. Egileak moldatuta.**

**2.1.1.2 UNESCOren eskalen alde onak eta kritikak**

Zalantzarik gabe, honako hau da gaur egun dagoen eskalarik zabal eta erabilgarriena. Hori da, hain juxtu, eskala honen bertute handiena, Sallabank (2014:7) eta Penman-en (2014) esanetan.

Azken honek honela dio: “Egiten den faktoreen banaketa deskribapen objektiboaren ideal zientifikoarengandik gertuago dago. Horretaz gain, eskala honek faktore hauen arteko harremana aztertzeke gonbita egiten du”.

Baina Dwyer-ek (2011:9) dioen bezala, hizkuntza txikientzat *in situ* egiteko eskala moduan prestatu zen eta hortik datoz bere hutsune handienak, izan ere, hizkuntza guztiei aplikatzeko muga asko ditu eskala honek.

Horretaz gain, eta ziurrenik irakurlea konturatuko zen moduan, aldagai bakoitzarentzat proposatutako mailak edo puntuaketak oso lausoak dira, zehaztugabeak. Hau honela, biztanle kopuru erlatiboa neurtzerakoan, zenbat da “komunitateko partaideen gehiengoa”? Eta “gutxiengoa”? Zer da “dokumentazio kopuru egokia” izatea? Eta erabilera-eremu berri ia guztietan erabiltzea? Ezer baino lehen, nor da hiztuna?



**Aldagai askok zalantzak sortzen dituzte, beraien baliotasuna dela medio. Alde batetik, hiztun kopuru absolutua dugu: ez da guztiz egia hizkuntza handiek biziraupena bermatuta dutela.**

**Hizkuntza-jarrerari dagokionez, jarrera hauek aldatu egiten dira, baina UNESCOren eskala hau hain denez estatikoa, zaila da bilakaera hori islatzea.**

Horretaz gain, beste zehaztapen falta nabari bat dago: faktore horiek behatzerakoan, gizarte osoa hartzen dugu kontutan edo hiztun-komunitate jakin bat? Izan ere, eta sardinieraren egoera adibidetzat hartuz, sardu hizkuntzaren transmisioa eten egin da Cagliari bezalako hirietan (Sardiniako Eskualde Autonomoa, 2006), nekazal herrietan nola edo hala mantendu den bitartean. Komenigarria litzateke jakitea zein den erreferentzia, eta erantzun ezberdinak baditugu, kasu honetan bezala, bataz bestekoa nola atera dezakegun erabakitzea.

Ikusiko denez, gisa honetako galderak etengabeak dira.

Honetaz gain, aldagai askok zalantzak sortzen dituzte, beraien baliotasuna dela medio. Alde batetik, hiztun kopuru absolutua dugu: ez da guztiz egia hizkuntza handiek biziraupena bermatuta dutela (Sallabank, 2014:21), eta adibidez, Afrikako hizkuntza askok eta askok hiztun kopuru mugatua dute eta indar paregabea dute (Mous 2003: 157 in Sallabank 2014:21).

Bestalde, hizkuntza-jarrerari dagokionez, jarrera hauek aldatu egiten dira, baina UNESCOren eskala hau hain denez estatikoa, zaila da bilakaera hori islatzea.

Gainera, hizkuntzaren egoera hoberantz edo okerrera doala zehazteko baliabide falta da, honen harira, eskala honen beste akats bat. Sallabank-ek dio biziraupen prozesua ez dela aintzat hartzen, hizkuntza-galera soilik, baizik.

Halaber, beste hiru faktore ebaluatzeko zailak dira. Lehenik eta behin, eskala honek ez du erabilera-eremu horien aldaketa behatzeko jarraibiderik ematen. Hau Maffiren (UNESCO, 2011) kritikarekin bat dator, egile honek eskala hau pasatzeko laguntza eskatzen baitu. Bigarrenik, dokumentazio-mota, alfabetatze-materiala, hizkuntza-politikak eta eremu berriei erantzuna aztertzeke irizpide sendorik ez dago, beraz, ikerlariak eurek ausaz puntuatu behar dituzte *item* hauek. Hirugarrenik, hizkuntza-jarrerak ere ez dira, eskala diseinatuta dagoen moduan, behintzat, faktore fidagarria, izan ere, eta sardinieraren kasura itzuliz, biztanleriaren %78ak hizkuntza hau erabiltzeko asmoa azaldu zuen (Sardiniako Eskualde Autonomoa, 2006), baina errealitatea guztiz bestelakoa da. Hizkuntza-jarrerak modu zehatz eta sistematikoan aztertzea da gakoa, beraz, beste aldagaiekin elkarrekintzan.

Eskala hau hobetzeko asmoz, Txinako CASS taldeak beste hiru faktore proposatu zituen (UNESCO, 2011:6), eta aldagai berri hauek kontutan hartzea merezi duelakoan nago. Honatx:

- 10. faktorea: Hiztun-komunitatearen banaketa: kontzentratua, nahastua eta banandua
- 11. faktorea: hizkuntzaren barne-aldaketa maila, hau da, gero eta mailegu, interferentzia eta nahasketa gehiago, orduan eta bizi-indar baxuagoa.
- 12. faktorea: Hizkuntzaren egoera herrialdeaz kanpo. Kasu honetan diasporan hizkuntza horrek duen indarra neurtzea litzateke.

Azken hiru faktore hauetan ere ez da inolako jarraibiderik ematen egoera neurtzeko, baina faktore horiek garatuta fruitu emankorrak jaso litezke, ziurrenik.

### 2.1.2 NILS

AIATS Australiako hizkuntza autoktonoen egoeraren inguruko inkestak egiteaz arduratzen den erakundea da, eta bertako gobernuaren menpean dago (AIATS, 2005). Herrialde horretan dauden 380tik gora hizkuntzak aztertzeko (Ethnologue, 2015), UNESCOren eskala hedatu zuten, eta NILS izena jarri.

#### 2.1.2.1 NILS-ek proposatutako eskalaren ezaugarriak

Esan bezala, UNESCOren eskalak dituen 9 faktore horietatik batzuk garatu egin dituzte, hamargarren faktore bat sortu eta hedatzeaz gain.

- 1. faktorea: Belaunaldien arteko transmisioa

#### 9. taula: NILS-ek lehenengo faktorerako proposatutako arrisku maila.

Arrisku maila	Gradua	Adin-tartea
Ziur edo indartsua	5	Denak
Ez ziur	4	<20 adin-tarteko %30-70 erabiltzen du
Benetako arriskuan	3	20 urtetik gorakoek soilik
Arrisku bizian	2	>40 urte
Arrisku larrian	1	>60 urte
Iraungia	0	Inork ez

Iturria: NILS 2005:31. Egileak moldatua.

**Eskala hau  
hobetzeko asmoz,  
Txinako CASS  
taldeak beste  
hiru faktore  
proposatu zituen.**

**10. taula: Hiztunaren adin-profilaren araberako hizkuntzen arrisku indikadorea.**

Adina	Indartsu	Arriskuan (hasiera)	Arrisku bizian	la iraungia	Iraungia
0-19	Mintzo dira	Mintzo ez	Mintzo ez	Mintzo ez	Mintzo ez
20-39	Mintzo dira	Mintzo dira	Mintzo ez	Mintzo ez	Mintzo ez
40-59	Mintzo dira	Mintzo dira	Mintzo dira	Mintzo ez	Mintzo ez
60+	Mintzo dira	Mintzo dira	Mintzo dira	Mintzo dira	Mintzo ez

**Iturria: McConvell&Thieberger 2001:65 in NILS 2005:30.**

Puntuaketa hauetara iristeko, NILS-ek irizpide eta galdera sorta bat proposatzen du, eskala pasatzeko zailtasuna arintzen duena. Horretaz gain, hiztun osorik ez dagoen kasuetan, 0 puntuaketa eman ordez, hamarrekotan oinarritutako azpi-talde bat sortu zuten, gelditzen diren hiztunen hizkuntza-maila zehatzago aztertzeko.

- 2. faktorea: Hiztun kopuru absolutua

Proposatutako irizpidea ez da euskararentzat baliagarria

- 3. faktorea: Hiztun kopuru erlatiboa biztanleria osoarekiko

**11. taula: Hiztun kopurua komunitatearen biztanle kopuru osoarekin alderatuta, ehunekotan.**

Arrisku maila	Maila	Hiztun kopuruaren ehunekoa, komunitatearen biztanleriaren kopuruarekin alderatuta
Seguru	5	la guztiek hitz egiten dute hizkuntza [>%90]
Ez-seguru	4	Gehiengo osoak hitz egiten du hizkuntza [%70-90]
Arrisku argian	3	Gehiengo batek hitz egiten du hizkuntza [%50-70]
Arrisku larrian	2	Gutxiengo batek hitz egiten du hizkuntza [30-50%]
Arrisku kritikoan	1	Gutxi batzuek hitz egiten dute hizkuntza [<%30]
Iraungita	0	Inork ez du hitz egiten hizkuntza

**Iturria: NILS 2005:128.**

- 4. faktorea: Galera hizkuntzen erabilera eremuetan UNESCOren irizpidea bere horretan utzi dute.
- 5. faktorea: Eremu berriei eta komunikabideei erantzuna Bere horretan
- 7. faktorea: Gobernu eta erakundeen hizkuntza jarrerak eta politikak, estatus ofiziala eta erabilera barne

Bere horretan

- 8. faktorea: Komunitateko partaideen jarrerak euren hizkuntzarekiko

Bere horretan

- 9. faktorea: Hizkuntza-dokumentazio mota eta kalitatea eta 6. faktorea: Hizkuntza irakasteko eta alfabetatzeko materialen erabilgarritasuna
- Bi kasu hauetan, dagoen dokumentazioa neurtzeko puntuaketa mota bat proposatzen du eskala honek.

- 10. faktorea: Hizkuntzak biziberritzeko programak

Faktore hau berria da eta euskalgintzaren indarra neurtzeko balio lezake.

## 12. taula: Hizkuntza biziberritzeko programen indarra neurtuko duen indikadorea.

Maila		Egitasmoen estatusa
Arrakastatsua	5	Era erregularrean diharduen programa bat dago hiztun kopuru osoaren %5 baina gehiagora heltzen dena
Ona	4	Badago egitasmo bat zeinek hiru ezaugarrietatik bi betetzen dituen: erregularra, arrakastaz, hiztunen %5 baino gehiago
Hola halakoa	3	Badago egitasmo bat zeinek hiru ezaugarrietatik bat betetzen duen: erregularra, arrakastaz, hiztunen %5 baino gehiago
Oinarrikoa	2	Badago egitasmo bat jende gutxi (<%5) erakartzen duena, era irregularrean eta arrakasta gutxirekin edo gabe
Hasten	1	Ez dago hizkuntza biziberritzeko egitasmorik baina ideia garatzen ari dira
Hutsala	0	Ez dago egitasmorik, ezta bat abiatzeko interesik ere

**Iturria: NILS 2005:130. Egileak moldatua.**

Faktore hauen zehaztapenez gain, NILS-eko dokumentuak, 134 orrialdetik 136 bitartera, faktore hauek nola interpretatu behar diren aholkatzen du. Horrela, datuei tratamendu estatistikoa eman behar zaiela azpimarratzen du, bai joerak eta bilakaera aztertuz, bai inkestak komunitate eta bertako partaide guztiei bakarka pasatuz, faktoreen arteko konbinazioak eginez eta baita hauen arteko korrelazioekin ere.

### 2.1.2.2 NILS eskalaren alde onak eta kritikak

Nahiz eta eskala honek ez duen Australiatik haragoko ibilbiderik egin, gaur egun ezezaguna baita ikerlarien artean, aurrerapauso handi bat da faktore batzuen neurketa modu sistematikoan egiteko proposatutako irizpideak. Halaber, ekarpen garrantzitsua egin diote hizkuntza gutxituen esparruari 10. faktorea eta eskalak pasatzeko jarraibideak gehituz.

Dena den, UNESCOren eskalak dituen hutsune berak ditu eskala honek askotan, esaterako, puntuaketa-sistema modu arbitrarioan egiteko arriskua eta egoeraren inguruan emaitza orokorrik ateratzeko ezintasuna.

## **2.2 Belaunaldien arteko transmisioa oinarri dutenak**

### *2.2.1 Graded Intergenerational Disruption Scale*

#### **2.2.1.1 GIDS eskalaren azalpenak**

Nahiz eta Joshua Fishman-ek, *Reversing Language Shift* (1991) liburua ateratzerakoan ez zuen horrelakorik espero, bere eredua eskala moduan erabili izan da (Sallabank, 2014:10), berak biziberritze egitasmoak gidatzeko jarraibide bezala planteatu arren.

Labur-labur, hizkuntzen egoera ulertzeko zortzi estadio finkatu zituen. Lehenengo lauretan diglosia egoerak gainditzea zen helburua, eta azken lauretan, berriz, berak hainbeste gorai patzen zuen belaunaldien arteko transmisioa. Hauek dira aipatu estadioak/helburuak:

1. Hizkuntza hezkuntza, lan-esparru, komunikabide eta erakunde maila gorenean
2. Bertako zerbitzu publikoak eta instituzionalak eta komunikabideak hizkuntza hori erabiltzen
3. Lan-esparru lokalean hizkuntza erabiltzea.
4. Irakaskuntza
  - 4.b. Helburu-hizkuntzaren hiztunentzako eskola publikoa dago, baina hizkuntza hegemonikoaren eskuetan daude baliabideak eta erabakiak
  - 4.a. Helburu-hizkuntzarentzako eskolak daude, bere hiztunen kontrolpean
5. Adin tarte guztientzako alfabetatze eskolak
6. Ama-hizkuntzaren transmisioa eremu intimoetan (sendia, auzoa eta komunitatea)
7. Hizkuntza gutxitu horretan burututako elkarrekintzen areagotzea, komunitatearen trinkotzea
8. Hizkuntza horren berreraikuntza

#### **2.2.1.2 GIDS ereduen alde onak eta kritikak**

Fishman-en eskala honek hainbat kritika jaso ditu, tartean, alfabetatzeari garrantzia gehiegi ematea eta mendebaldeko balioekiko dituen aurreiritziak

islatzea (Hinton, 2003 eta Luepke k.p. in Sallabank, 2014:10). Romainek (ibid.), bestalde, hezkuntza bigarren mailan jartzea leporatu zion, baina Fishmanek faktore garrantzitsuena transmisioa zela gogoratu zuen.

Honetaz gain, bi planteamendu ‘inozo’ egiten ditu Fishman-ek eredu honetan. Alde batetik, diglosia egonkorra lortu daitekeela pentsatzea, eta bestalde, “*prior ideological clarification*” delakoa, hau da, hizkuntza gutxituen biziberritzea gizarte osoaren zoru etiko edo ideologiko-politikoan dauden ustea (Sallabank, ibid.).

Kritika ‘konstruktiboenak’ SIL erakundeko Lewis eta Simmons (2010) ikerlariak egin zizkieten. Egile hauen esanetan, GIDS ereduaren estadioak estatikoak ziren, hizkuntzen balizko estatus guztiak ez zituen kontutan hartzen eta faktore jakin batera mugatzen zen Fishman (Lewis and Simmon, 2010:106). Horretaz gain, estadio horiek garatuagoak daude hizkuntzaren egoera hobea denean, baina egileek (ibid. 107. orr.) gogoratzen dute 1) egoeren ezberdintasuna handiagoa dela beheko mailetan eta 2) biziberritzea ez diola lekurik egiten.

Aipatu hutsune hauen garapenetik, Lewis eta Simmonsek euren eskala propioa proposatu zuten: EGIDS-a.

## 2.2.2 EGIDS (Extended Graded Intergenerational Disruption Scale)

### 2.2.2.1 EGIDS eskalaren ezaugarriak

Fishmanen estadioak aintzat hartuz eta transmisioa, alfabetatzea eta estatusa aldagaiak erreferentzia moduan erabiliz, Lewis eta Simmonsek EGIDS delakoa garatu zuten. EGIDS eskala mundu mailan hizkuntzen atlas erabili den Ethnologue ekimenak erabiltzen du.

Hizkuntza baten egoera zein den jakiteko, galdera sinple batzuei egindako erantzuna behar duzu soilik. Behean galdera horiek:

1. galdera: Zein da hizkuntza horren gaur egungo identitate funtzioa?
2. galdera: Zein da hizkuntza horren erabilera ofizialaren maila?
3. galdera: Guraso guztiak ari al dira hizkuntza euren hurrei transmititzen?
4. galdera: Zein da alfabetatzearen estatusa?
5. galdera: Zein da hiztun osoen belaunaldi gazteena?

---

**Fishman-en eskala honek hainbat kritika jaso ditu, tartean, alfabetatzeari**

**garrantzia gehiegi ematea eta mendebaldeko balioekiko dituen aurreiritziak islatzea.**

Esan bezala, galdera horietatik abiatuta norberak hizkuntza horren bizi-indarra sailka lezake:

**3. irudia. EGIDS eskala azaltzen duen grafikoa.**



**Iturria: Lewis and Simmons 2010:30. Egileak moldatua.**

Beheko taula honetan ikusi daitekeen eran, EGIDS-ek proposatzen dituen etiketak eta UNESCOk proposatutakoak baliokideak izan daitezke hein handi batean:

**13. taula. EGIDS-en arrisku maila ezberdinak eta UNESCOren mailekin alderaketa.**

EGIDS			
Maila	Etiketa	Azalpena	UNESCO
0	Nazioartekoa	Hizkuntza nazioartean erabiltzen da, funtzio askotarako	Ziur
1	Nazionala	Hizkuntza hezkuntzan, lanean, komunikabideetan eta herrialde mailako gobernuetan erabiltzen da	Ziur
2	Eskualdekoa	Hizkuntza bertako eta eskualdeko komunikabideetan eta gobernu-zerbitzuetan erabiltzen da	Ziur
3	Merkataritzarako	Hizkuntza bertako eta eskualdeko lantokiengan erabiltzen da, bai bertako eta bai kanpoko jendearen bitartez	Ziur
4	Hezkuntzako	Hizkuntzaren alfabetatzea hezkuntza publikoko sistema baten bidez transmititzen da	Ziur
5	Idatzia	Hizkuntzak ahozko erabilera du belaunaldi guztietan eta nolabaiteko erabilera du idazterakoan	Ziur
6a	Bizirik	Hizkuntza belaunaldi guztiek erabiltzen dute hitz eginez eta haurrak hizkuntza horretan heziak dira	Ziur
6b	Arriskuan	Hizkuntzak ahozko-erabilera du belaunaldi guztietan, baina soilik guraso batzuk transmititu diete hizkuntza euren haurrei	Ez ziur
7	Galeran	Haurrak izateko garaian dauden belaunaldiak badaki hizkuntza baina inork ere ez dio haurrei irakasten	Arrisku argian
8a	Hilzorian	Gelditzen diren hiztun bakarrak aitona-amonen belaunaldikoak dira	Arrisku larrian
8b	Ia iraungia	Gelditzen diren hiztun bakarrak birraitona-amonen belaunaldikoak dira edota nagusiagoak, eta hizkuntza erabiltzeko aukera gutxi dituzte	Arrisku kritikoa
9	Lozorroan	Hizkuntzak talde etniko baten ondare gisa balio du soilik. Komunitateko kideak, gehienez ere, hizkuntzaren ezagutza simbolikoa dute	Iraungia
10	Iraungia	Inork ez du hizkuntzaren balio identitarioa mantentzen eta ez dute ezta ezagutza simbolikorik	Iraungia

Iturria: Lewis eta Simmons, 2010:27. Egileak moldatuta.

Fishman-en egitasmoari biziberritzeari garrantzia gutxi eman ziola leporatu ziotenez, beraien eremuan maila alternatiboak proposatu zituzten behetik gorako bidea egiten ari ziren hizkuntzentzako, beheko taulan ikusi daitekeen legez.



**14. taula. EGIDS-en biziberritze prozesuan dauden hizkuntzen sailkapena.**

EGIDS (Biziberritze prozesua neurtzeko moldaketa)			
Maila	Etiketa	Azalpena	UNESCO
6a	Bizirik	Hizkuntza belaunaldi guztiek erabiltzen dute hitz eginez eta haurrak hizkuntza horretan heziak dira	Arriskuan (maila ezberdinak)
6b	Berrezarria	Hirugarren belaunaldiko haur batzuk hizkuntza jasotzen ari dira etxean, aldez aurretik apurtuta zegoen transmisio katea berrosatuz	
7	Biziberritua	Haurren bigarren belaunaldi bat hizkuntza jasotzen ari da beraien gurasoengandik, zeintzuk hizkuntza etxean jaso zuten ere. Hizkuntza transmisioa etxean eta komunitatean gertatzen da.	
8a	Berpiztua	Haurrak hizkuntza komunitateetan jasotzen ari dira eta gero eta etxe kopuru handiagoetan hizkuntza irakasten ari dira, behintzat, eguneroko komunikazio beharrak asetzeko adina	
8b	Berri sartua	Gurasoen belaunaldiko helduak hizkuntza berreraikitzen ari dira eta beraien bizimoduan txertatu dute	
9	Berriro deskubritua	Helduek hizkuntza aurkitu dute beraiek identifikatzeko eta balio sinbolikorako	

**Iturria: Lewis eta Simmons, 2010:26. Egileak moldatuta.**

**2.2.2.2 EGIDS-aren alde onak eta kritikak**

EGIDS-en kasuan ere, UNESCOren eskalan hain kamusgarriak iruditu zaizkigun zehaztapen faltak nabarmenak dira. Izan ere, hiztun osoen belaunaldi gazteenaren bila ari bagara, Penman-ek (2014) Siziliako Acireale herrian 6atik 8a-ra bitarteko koska guztiak behatu zituen, sizilieraren arrisku-mailari dagokionez.

Horretaz gain, modu zehatzean sailkatzeko ezintasuna aurki dezakegu hizkuntza-galera pairatzen ari diren hizkuntza handien kasuan ere, adibidez, quechua. Bestalde, jaiotze-tasa baxua duen komunitate batek izan dezakeen arriskua ez du kontuan hartzen eskala honek (Penman, 2014), transmisioa aldagaia modu isolatuan aztertzen baitu. Hau izan liteke, adibidez, Portugalgo miranderaren (Urbistat, s.d.) eta Extremadurako “A nosa fala”-ren kasua (IEEX, 2011).

Beraz, aldagai bakoitza banan-banan aztertu gabe eta UNESCOko gomendio eta kritika asko hona ekarri, EGIDS-ek izugarritzko zehaztasun

falta du bizi-indarra neurtzeko erabili daitezkeen faktoreen mailak erabakitzerako orduan.

Bukatzeko, UNESCO eta EGIDS-en arteko alde nabarmena konplexutasunean dagoela argi dago, eta hori, zalantzarik gabe, ona zein txarra izan liteke azken honen mesedetarako. Alde batetik, ona EGIDS eskala pasatzea errazagoa delako, eta bestalde, txarra, hizkuntza baten egoera oso azaletik deskribatzen duelako.

### 2.3 Beste eskala batzuk

Hizkuntza gutxituen ikerketa esparruan beste hainbat eskala ere proposatu dira, azkenengo laurekin antza gutxi dutenak, eta ziurrenik, oharkabean pasatu direnak. Dena den, aniztasunak aberasten gaituenez, ekarpen interesgarriak egin ditzaketelakoan ondorengo lerroetan aztertuko dira eskalak.

#### 2.3.1 Bizi-indar etnolinguistikoa

Giles, Bourhis eta Taylorrek sortu zuten 1977an eta ikerlari hauen asmoa hizkuntzaren, etnizitatearen eta taldeen arteko harremanen azterketa jorratuz hizkuntzaren egoera ikertzen lagunduko zuen eredua sortzea zen (Sallabank, 2014:11). Esparru sozio-psikologikotik dator hiru aditu hauen ekarpena eta Tajfel-en (1974; 1978; 1981 in Sallabank, 2014:11) taldeen arteko teoriarekin du zerikusia.

Gizabanakoen iritzia jasotzen du eskala honek, hiru aldagai irizpidetzat hartuz, hots, hizkuntzaren estatusa, demografia eta erakundeen sostengua (ibid.). 1980an garatu zen “bizi-indar etnolinguistiko subjektiboa” faktorea garatzeko. (ibid.)

---

**Giles, Bourhis  
eta Taylorrek  
sortu zuten  
1977an eta  
ikerlari hauen  
asmoa  
hizkuntzaren,  
etnizitatearen eta  
taldeen arteko  
harremanen  
azterketa  
jorratuz  
hizkuntzaren  
egoera ikertzen  
lagunduko zuen  
eredua sortzea  
zen.**

### 2.3.1.1 Ethnolinguistic vitality eskalaren ezaugarriak

#### 15. taula: Bizi-indar etnolinguistikoaren eskala.

Estatua	Demografia	Sostengu instituzionala
Botere ekonomikoa	Taldeko partaideen kopurua	Erakunde formal eta informaletan talde horrek duen ordezkapen maila
Estatu soziala	Banaketa lurralde horretan	
Prestigio sozio-historikoa		
Hizkuntzaren estatua		

Iturria: Sallabank, 2014:11. Egileak moldatuta.

### 2.3.1.2 Eskala honen alde onak eta kritikak

Berehalakoan ikusi daitekeenez, eskala sinple eta guztiz subjektiboa dugu hau, eta beste eskalen kasuan bezalaxe, ez dago hizkuntzaren egoera neurtzeko jarraibide edo azalpenik. Gizabanakoei egindako galde-tegi luzeak dira eskala honen informazio-iturria, baina hizkuntzen ukipena, hizkuntzaren garrantzia soziala, hiztun-komunitatearen eta talde osoaren sostengua, eta klasea, adina eta generoa bezalako funtsezko aldagaiak ez ditu kontuan hartzen.

Kritika gogorak jaso ditu eskala honek, tartean Husband eta Saifullah-Khan-ena (1982: 195): “Ez da eredu teoriko bat, baizik eta ausaz proposatutako atal batzuen proposatze hutsa”.

Dena den, baliagarria litzateke balizko eskala osoago bat osatzerako orduan hemen dauden faktore berri hauek guztiak kontuan hartzea, beste eskalek ez baitituzte kontuan hartzen.

### 2.3.2 Landweer-en bizi-indar etnolinguistikoa neurtzeko indikadoreak

Giles eta enparauen ildoko proposamena da Landweer-ena (2012), baina azken hau nekez izango da eskala bat, faktore multzo bat proposatzea besterik ez baitzuen egin (Sallabank, 2014:14).

### **2.3.2.1 Landweer-en ereduak proposatutako aldagaiak**

Hauek dira egile honek proposatutako 8 aldagaiak

- Zein neurritaraino eutsi diezaioken hizkuntza horrek kultura urbano menperatzailearen eragina
- Erabiltzen den erabilera-eremu kopurua
- Kode arteko aldaketa eta nahasketaren maiztasuna eta mota
- Hitzunen banaketa sare sozial ezberdinetan
- Kanpotik eta talde barnetik hiztun-komunitateak duen erreko-nozimendua
- Hizkuntza horren prestigio erlatiboa, inguruan dituen hizkuntzekin alderatuta
- Hizkuntza horrek oparotasun ekonomiko egonkorrera iristeko eskaini dezakeen sarbidea
- Hitzun osoek osatutako masa kritiko bat egotea

### **2.3.2.2 Landweer-en faktoreen alde onak eta kritikak**

Giles eta enparauen kasuan bezala, Landweer-ek egindako lana ia oharkabean pasatu da eta ebaluazio gutxi izan ditu. Horietako bat izan da Obierorena (2010), zeinek esaten duen, EGIDS-en kasuan bezalaxe, neurketak ausaz egin behar direla, 1) faktoreak ez direlako ulertzen eta 2) ez dagoela irizpide finkorik.

Egile honek arrazoi duen arren, ezin da ahaztu faktore erabilgarri askoak proposatzen dituela Landweer-ek eta izugarri aberastu dezaketela hizkuntza baten egoeraren azterketa.

### *2.3.3 Linguistic Vitality Test*

Margaret Floreyk (2007) eta bere lan taldeak Indonesiako hizkuntza askoren egoera neurtzeko test hau proposatu zuen. Test honen berezitasuna da hizkuntzaren ezagutza bakarrik hartzen duela kontutan hizkuntza horren egoera neurtzeko. Hau ulergarria da Indonesiako testuinguruaz aztertuz gero, eleaniztasunera ohitutako tokia izanda eta gure errealitate lehiakor eta global honetatik urrunago egonda.

#### **2.3.3.1 Hizkuntzaren bizi-indarraren testa**

Azterketa honek hiru atal ditu:

1. atala: Ulermen pasiboa neurtzen duen froga

2. atala: Hizkuntza horretan pertsona horrek duen ekoizpen maila neurtzeko froga

3. atala: Hizkuntza eta sormena neurtzen duen froga

Urte batzuk geroago, Rassool-ek (RNLD, s.d.) azterketa hau hedatu eta itzulpen, diskurtso eta ezagutza lexikala neurtuko zituen frogak gehitu zizkion LVT delakoari.

### 2.3.3.2 LVT delakoaren alde onak eta kritikak

Argi dago eskala holistiko bat izateko ez dela nahikoa, baina hizkuntza ezagutza neurtzeko balio du azterketa honek. Edonola ere, kontuan izan behar da hizkuntza eta komunitate txikietan erabili izan dela froga hau, beraz, ikusteko dago herrialde handiagoetan izan dezakeen aplikagarritasuna.

## 3. ONDORIOAK

### I

Orain arte, esparru akademikoan gehien erabili diren eskalak deskribatu eta aztertu dira. Egilearen ustetan, dauden eskala guztiak deskribatu dira, Kincade, Krauss eta Wurm-ena (in Crystal, 2000) izan ezik. Azken hauek ez liokete ekarpen esanguratsurik egingo honako lan honi eta horregatik baztertu dira.

Izan ere, egile edo erakunde bakoitzak bere eredua proposatu izan du, bakoitzari iruditzen zitzaizkion irizpideak hobetsiz (Sallabank, 2014:24), eta eredu berri hori argitaratzea balioetsi da, eredu berri horren kalitatearen gainerik.

Hurrengo lerroetan bi atal ikusi ahalko dira. Alde batetik, berrikusi ditugun eskalen hutsuneak azpimarratuko dira, eta bestalde, euskararentzako sortu nahi den balizko eskala horri proposamen batzuk egingo zaizkio, ikerlan honetan ikusitakoaren harira.

### 3.1 Orain arteko eskalen gabeziak

Aztertu diren eskalen hutsune nabariena faktoreen eta faktore horien arabera ebaluatzeko tresnen zehaztapen falta da, izan ere, kasu gehienetan emandako irizpideak ez dira garbiak eta ebaluatzaileak berak bere irudipenaren arabera puntuatu behar du hizkuntza horren egoera, horrek dakartzan arazoekin. NILS eskalak hutsune hori estali du nolabait, baina oraindik pausu gehiago eman behar dira.

Argi eta garbi, oinarri zientifikoa duten faktoreak behar dira, faktore horien arabera hizkuntza bat ebaluatzeko puntuaketa sistema zehatza eta hizkuntza-galeraren fenomenoak osoki aztertuko duen eredu bat, faktore bakar batean bakarrik oinarritu gabe. Izan ere, Sallabank-ek (2014:24), honen harira, hiru akats ikusten dizkie eskalei: bata izaera deskriptiboa dutela, gehienbat; bigarrena, hizkuntza-galeran eragiten duten faktoreak ez direla aztertzen; eta azkenik, inguruko hizkuntzen eragina ez dela inola ere aztertzen, ahaztuta hizkuntza-galera hizkuntzen arteko ukipenarekin estuki lotua dagoela.

Halaber, hiztun kopuruak ere hainbat buruhauste sortu ditzake eskalak era egokian pasatu nahi badira. Izan ere, ez da erraza jakitea zein den hiztuna eta zein ez, eta horren ondorioz, hiztun kopurua kalkulatzekoan desadostasun eta akats handiak izan ohi dira.

Bestalde, eskala batek bi arazo sortzen ditu maila geografikoan. Lehenik eta behin, zaila da, hain faktore eta irizpide orokorrekin, herrialde batean hizkuntza jakin batek zein egoera duen jakitea: Euskal Herrian euskararen egoera berdina al da? Erantzuna ezezkoa da, eta hortaz, zaila da egoera anitz batetatik abiatuta diagnostiko orokor bat egitea. Honenbestez, eskalek ezingo dute fidagarriak izan azaletik pasatzen baditugu, baina eskualdez eskualde eskala horiek erabili nahi baditugu, ezinbestean eskala horien egitura eta izaera aldatu behar dira.

Honetaz gain, eskala bat pasatzeak berak hainbat arazo sor ditzake, Sallabank-en (2014:18) esanetan. Ikerlari honek dio eskala bat diseinatzerako orduan hainbat erabaki hartu behar direla, hala nola, metodo kualitatibo edo kuantitatiboak hautatu behar diren, nori galdetuko zaion, aurrez aurre egindako galderak al diren, nola lortu galdetegi horien baliakortasuna eta abar. Galdera hauei erantzunez, eta UNESCOk (2011:12) gomendatutakoaren harira, diagnostiko bat egiterakoan ezinbestean bertako eragile eta hiztunekin lankidetzan jardun behar da, eta hizkuntza eta komunitate bakoitzaren egoerara hobekien moldatzen den eredu aukeratu. Edonola ere, Sallabank-ek (2014:18) esaten du ez dela harritzekoa eskala bat ondo egiteko komunitatean hainbat hilabete pasatu beharra.

### 3.2 Eskala on bat sortzeko proposamenak

2. atalean ikusi dugun bezalaxe, orain arte erabili diren eskalek faktore eta ekarpen esanguratsuak dituzte, eta horiek bazter batean uztea ez litzateke ez komenigarria, ez zentzuduna. Eskala berri bat sortzekotan dabilenak, ezinbestean, orain arte erabili diren aldagai horiek hartu,

---

**Oinarri zientifikoa duten faktoreak behar dira, faktore horien arabera hizkuntza bat ebaluatzeko puntuaketa sistema zehatza eta hizkuntza-galeraren fenomenoak osoki aztertuko duen eredu bat, faktore bakar batean bakarrik oinarritu gabe.**

berrikusi eta moldatu, aldagai berri batzuk ekarpen bereziren bat egin badezakete horiek txertatu, eta NILS-en kasuan ikusi dugun bezalaxe, aldagaiak euren artean konbinatu eta korrelazioak egin behar dira, faktoreen tratamendu estatistikoarekin informazio gehiago lortu dezakegularako.

### 3.2.1 Ikusi ditugun eskaletatik zer hartu

Ondorengo lerroetan laburtuko da sartu beharko liratekeen aldagaien zerrenda, eskalaz eskala azalduta.

#### 3.2.1.1 UNESCO

##### 16. taula. Balizko eskala bat osatzeko UNESCOren eskalatik har litezkeen faktoreak.

Interesgarriak diren aldagaiak	Oharrak
2. faktorea: Hitzun kopuru absolutua	Hitzun kopuru zehatzak lortu behar dira eta jakin behar da aldagai horrek nola eragiten duen bizi-indarrean
4. faktorea: Galera hizkuntzen erabilera eremuetan	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin
5. faktorea: Eremu berriei eta komunikabideei erantzuna	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin
7. faktorea: Gobernu eta erakundeen hizkuntza jarrerak eta politikak	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin. Horretaz gain, <i>de facto</i> diren jarrerak ez dira zertan <i>de jure</i> izan behar, eta alderantziz.
8. faktorea: Komunitateko partaideen jarrerak euren hizkuntzarekiko	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin. Horretaz gain, <i>de facto</i> diren jarrerak ez dira zertan <i>de jure</i> izan behar, eta alderantziz.
CASS taldearen proposamena	
10. faktorea: Hitzun-komunitatearen banaketa: kontzentratua, nahastua eta banandua	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin.
11. faktorea: hizkuntzaren barne-aldaketa maila, hau da, gero eta mailegu, interferentzia eta nahasketa gehiago, orduan eta bizi-indar baxuagoa	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin. Fenomeno asko daude faktore honen barnean eta zaila da hizkuntza-galerarekin lotzea.

12. faktorea: Hizkuntzaren egoera herrialdeaz kanpo	Diasporak duen garrantzia, kohesio-maila eta jatorrizko lurraldearekin duen harremana azertu beharko lirateke, diasporan dagoen hizkuntza ezagutza eta erabilera maila aztertzearekin batera. Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin.
---	--

**Iturria: Egileak sortua.**

### 3.2.1.2 NILS

**17. taula. Balizko eskala bat osatzeko NILS eskalatik har litezkeen faktoreak.**

Interesgarriak diren aldagaiak	Oharrak
1. faktorea: Belaunaldien arteko transmisioa	Ondo zehaztua, agian Euskal Herriko egoerara moldatu beharko litzateke.
3. faktorea: Hitzun kopuru erlatiboa biztanleria osoarekiko	
6. faktorea: Hizkuntza irakasteko eta alfabetatzeko materialen erabilgarritasuna	
9. faktorea: Hizkuntza-dokumentazio mota eta kalitatea	
10. faktorea: Hizkuntzak biziberritzeko programak	

**Iturria: Egileak sortua.**

### 3.2.1.3 GIDS

Ekarpenik ez, EGIDS-ek dituenak hobeto.

### 3.2.1.4 EGIDS

**18. taula. Balizko eskala bat osatzeko EGIDS eskalatik har litezkeen faktoreak.**

Interesgarriak diren aldagaiak	Oharrak
1. galdera: Zein da hizkuntza horren gaur egungo identitate funtzioa?	Erantzun objektibo bat eman eta sailkapena nola egin erabaki beharko litzateke.
2. galdera: Zein da hizkuntza horren erabilera ofizialaren maila?	
4. galdera: Zein da alfabetatzearen estatusa?	



5. galdera: Zein da hiztun osoen <del>balainaldi nazteena?</del>	
Goranzko bidean dauden hizkuntzei egindako sailkapen	Goranzko edo beheranzko bide alternatibo horietara datu objektiboekin iritsi eta gai izan beharko ginatke sailkapen orokorrean

**Iturria: Egileak sortua.**

### 3.2.1.5 Ethnolinguistic Vitality Test (EVT)

Eskala honetan proposatzen diren aldagai batzuk aipatu ditugun beste eskaletan daude, beraz, ondorengo hauek dira ekarpen berria egiten duten aldagaiak:

#### 19. taula. Balizko eskala bat osatzeko EVT eskalatik har litezkeen faktoreak.

Interesgarriak diren aldagaiak	Oharrak
Botere ekonomikoa	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin.
Estatus soziala	
Prestigio sozio-historikoa	
Erakunde formal eta informaletan talde horrek duen ordezkapen maila	

**Iturria: Egileak sortua.**

### 3.2.1.6 Landweer-en testa

Behean dauden eskala batzuk besteekin antza handia duten arren, Landweer-ek bere eskalari ematen zion izaera kritikoa erabilgarria izan liteke.

#### 20. taula. Balizko eskala bat osatzeko Landweer eskalatik har litezkeen faktoreak.

Interesgarriak diren aldagaiak	Oharrak
- Zein neurritaraino eutsi diezaiokeen hizkuntza horrek kultura urbano menperatzailearen eragina	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin.
- Hitzunen banaketa sare sozial ezberdinetan	
- Kanpotik eta talde barnetik hiztun-komunitateak duen errekonozimendua	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin. Horretaz gain, <i>de facto</i> diren jarrerak ez dira zertan <i>de jure</i> izan behar, eta alderantziz.
- Hizkuntza horren prestigio erlatiboa, inguruan dituen hizkuntzekin alderatuta	Puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin
- Hizkuntza horrek oparotasun ekonomiko egonkorrera iristeko eskaini dezakeen sarbidea	Zaila da aztertzen.

- Hitzun osoek osatutako masa kritiko bat egotea	Zaila da aztertzen eta puntuaketa sistematikoa behar da, irizpide zehatzekin
--	--

**Iturria: Egileak sortua.**

### 3.2.1.7 Florey-ren Linguistic Vitality Test (LVT)

#### 21. taula. Balizko eskala bat osatzeko LVT eskalatik har litezkeen faktoreak.

Interesgarriak diren aldagaiak	Oharrak
Hizkuntza ezagutza neurtzeko frogak	Hitzun guztiei banan-banan froga eginaraztea nekagarria izan liteke, baina tratamendu estatistikoaren bitartez lagin txiki baten emaitzak orokortu litezke

**Iturria: Egileak sortua.**

### 3.2.2 Balizko eskala horrentzako proposamen berriak

Ikerlan honetan jorratutako eskalez gain, badira gure inguruan egindako ekarpen esanguratsuak, zalantzarik gabe, eskala bat osatzeko aldagai garrantzitsuak izan daitezkeenak. Teoria eta kontzeptu horiek irizpide zehatzetara ekartzea zaila izango da, baina aukera hor dago.


#### 3.2.2.1 Sanchez Carrión “Txepetx”-en ekarpenak

90. hamarkadan euskal soziolinguistika errotik irauli zuen liburua argitaratu zuen Txepetxek (1987), eta badira liburu horretan eskala baterako moldagarriak diren hiru kontzeptu.

Lehenengoari “gune sinbolikoa” deritza, eta komunitatean dauden hitzun motatik abiatuta hizkuntza horren diagnosis egiten du (Txepetx 1987:64). Hau honela, A, B eta  $\emptyset$  ezaugarriak izan ditzake hitzun batek, esparru intimoetako transmisio bidez jasotakoa, etxetik kanpo maila jasoan ikasitakoa eta ezagutza hutsa, hurrenez hurren. Txepetxek garrantzia handia ematen zion hitzun osoei, hau da, esparru intimoan hizkuntza erabiltzeaz gain maila jasoan lortu zuten horiei (ibid.). Zehatzago esanda, hitzun horiek AB eta BA hitzunak ziren, etxetik jasotako hitzun jasoak eta beranduago alfabetatutako baina euskara euren lehen hizkuntza gisa hartutako hitzun osoak. AB eta BA taldeek gune sinbolikoa deritzona osatzen dute, beheko grafikoan ikus litekeen bezala. Txepetxen aburuz, gune sinboliko garrantzitsu batek hizkuntza aurrera bultzatzen du eta hizkuntzaren biziberritzean eragile garrantzitsuak dira (ibid.).

**Txepetxen  
ekarpen bat  
hizkuntzen  
bilakabidea  
azaltzeko  
proposatu zuen  
eredua da.  
Bertan,  
hizkuntzen  
gorabeherak  
zergatik  
gertatzen diren  
azaltzen du,  
pausoz pauso.**

**4. irudia. Txepetxek proposatutako hiztun moten egitura.**




**Iturria:** Zarraga et al., 2010:265.

Aldagai hau eskala batetan txertatu nahiko bagenu, arazoa ez da berria: argudioren bat erabiliz, balio bat eskaini beharko genioke, adibidez, gune sinbolikoa gizartearen %20a izateari.

Txepetxen beste ekarpen bat hizkuntzen bilakabidea azaltzeko proposatu zuen eredua da. Bertan, hizkuntzen gorabeherak zergatik gertatzen diren azaltzen du, pausoz pauso. Oraingo honetan ere, irizpideak eta puntuaketa sistema zehatza behar ditu faktore honek, nahiz eta pauso bati, adibidez, “legezko babes”, 3 puntu eman ahal dizkiogun, “funtzioen berreskurapenari” 4 puntu eta abar. Alderantziz, continuum-aren beste muturrean dauden egoerein balio negatiboa eskaini geniezaioke.

Kontzeptu hau EGIDS-ek aldarrikatzen zuen goranzko eta beheranzko ibilbideen sailkapena burutzeko erabili dezakegu, adibidez.


**5. irudia. Txepetxek proposatutako hizkuntzen normalizazio eta galera bilakabidea.**



Iturria: Zarraga et al., 2010:266.

Hirugarrenik, eta (E)GIDS-ek egindako ekarpenen harira, Sanchez Carrión-ek hizkuntza batek bete ditzakeen funtzioak zehaztu zituen. Horretaz gain, eta beheko irudian ikus litekeen moduan, lehenengo bost funtzioak betetzen dituen hizkuntza dago normalizatua, hortik behera, hizkuntza-galeran dago. Funtzio-kopuru jakin batek, esaterako, puntu kopuru bat eman ahal dio eskala baten sailkapenean.

**6.irudia: Txepetxek proposatutako hizkuntzen funtzioen taxonomia.**



Iturria: Azpiroz, 2010.

### 3.2.2.2 Euskararen erabilera

Euskal Herria aitzindaria da euskararen erabilera neurtzeko diseinatu zuen kale erabilera behatzeko tresnarengatik (Altuna eta Basurto, 2013). Hizkuntzaren erabilera oso ezaugarri garrantzitsua da hizkuntzaren diagnostikoa egiteko, eta zorionez, euskarak hori modu zehatz eta fidagarrian neurtzeko baliabidea du. Eskala batean txertatzeko, erabilera ehunekoan araberako irizpideak eta taldeak finkatu beharko lirateke.

Honetaz gain, Txilardegik hizkuntza baten esperotako erabilera kalkulatzeko algoritmoa sortu zuen, eta ekarpen hau nazioartean oharkabean pasa den arren, oso erabilgarria izan liteke.

Hau da algoritmoa (Alvarez Enparantza, 1984 in Zarraga et al. 2010:47):

$$PB = mB (w2ex. 2 + w3ex. 3 + w4ex. 4)$$

**PB = euskararen erabilera-maila**

**mB = euskararekiko leialtasuna**

**w2 = bikotearen pisua**

**w3 = hirukotearen pisua**

**w4 = laukotearen pisua**

**eX = elebidunen proportzioa"**

Algoritmo hau aspaldi diseinatu zenez eta Txilardegik proposatutako aldagaiak subjektiboak eta denboran zehar aldagarriak direnez, beharbada berritze bat beharko luke, zeinetan matematikari eta soziolinguistek elkarrekin lan egingo duten. Euskararekiko leialtasunari dagokionez, Fishman-ek (in Hornberger eta Pütz, 2007) teoria hau garatu du azken hamarkada hauetan.

Bukatzeko, Sallabank-ek (2014:19) eskala on bati hizkuntza erabiltzera bideratzen gaituzten baldintzak aztertzeke eskatzen zion, hau da, noiz, non, norekin, zenbatean behin, zertarako eta zein erabilera eremuetan erabiltzen den hizkuntza ikertu beharko litzatekeela alegia, besteak beste. Soziograma moduko bat egitea litzateke, beste era batera esanda.

### 3.2.2.3 Milroy eta sare sozialak


Azken proposamen honekin lotua dago Milroy-ren gizarte-sarea kontzeptua, zein azterketa sozialaren unitateetako bat den.

Hau da bere definizioa (Zarraga et al. 2010:114): "gizarte-sarea gizabanakoen arteko harreman zuzenen egitura da eta ondasun eta zerbitzuak

trukatzeko, betebeharrak ezartzeko eta kideei dagozkien eskubideak onartzeko eragile moduan funtzionatzen du.”


Gizarte-sareak hizkuntzaren egoeran duen eragina ondorioztatzeko, pertsona horren harremanak aztertu beharko genituzke, beheko irudietan bezalaxe.

**7. irudia. Dentsitate handiko harreman sarea.**



Iturria: Milroy 1994: 3.986 in Erize, 2009:345.

**8. irudia. Dentsitate txikiko harreman sarea.**



Iturria: Milroy 1994: 3.986 in Erize, 2009:345.

Beste behin, kontzeptu hau zenbaki edo estatistiketara nola ekartzea den gakoa, baina hizkuntzaren diagnosis egiteko tresna aproposa da.

### **3.2.2.4 Soziolinguistika Klusterraren eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren ekarpenak**

Bi erakunde hauek kale erabileraren neurketaz arduratzen diren arren, horretaz gain, inkesta soziolinguistikoa eta Arrue ikerketa dituzte abian. Lehenengoak hiztun kopurua, hauen ezaugarriak eta datu hauek denak izandako bilakaera ditu aztergai (Eusko Jaurlaritza, 2011), eta bigarrenak, berriz, eskolan umeek egiten duten euskararen erabilera (Soziolinguistika Klusterra, 2011). Zalantza izpirik gabe, UNESCOren bigarren faktoreari sendotasuna emateko baliabidea dugu lehenengoa, eta eskolaren garrantzia eta transmisio soziala aztertzeke baliabidea, berriz, bigarrena. Eskalaren batean txertatzen jakitea lortuz gero, irizpide eta jarraibide guztiekin, informazio esanguratsua eskaini dezakete biek halako biek. ●

### **OHARRAK**

1. Ikus, besteak beste, Denison 1977; Dorian 1977, 1980, 1981, 1987, 1989; Gal 1978; Skutnabb-Kangas 2000
2. Eskala horiek ikusteko, esteka hau baliagarria da. [http://www.rnld.org/assessing\\_vitality](http://www.rnld.org/assessing_vitality)
3. Hau Fishmanen aurkako 'erasotzat' ikus liteke, izan ere, egile honek 1991n proposatutako eskalan, eta oro har, bere karrera osoan zehar, faktore bakar bati eman dio garrantzia handiena, belaualdien arteko transmisioa, alegia.
4. Esate baterako, mundu mailan bakarra den Kale Erabileraren Neurketa, Mapa Soziolinguistikoa, Inkesta Soziolinguistikoa eta Arrue Ikerketa
5. Informazio gehiago hemen: [http://www1.euskadi.net/euskara\\_adierazleak/udalak.apl?hizk=e](http://www1.euskadi.net/euskara_adierazleak/udalak.apl?hizk=e)
6. Fishman, Giles et al., Edwards 1992
7. Etnozentrismo kutsua dario aldagai honi, bide batez esanda
8. Fishbein eta Ajzen-ek 1977an kaleratutako ondorioekin bat dator hau.
9. Hizkuntza politikaz arduratzen den erakunde bat da
10. Ikus 125 eta 126 orrialdeak
11. Ikus 31. orrialdea
12. Esaterako, hitzuna nor den pertsona horri galdetuz ebazten dute bi eskalek, eta erantzun hori, jakina, subjektiboa da.
13. Informazio gehiago nahi izatekotan, esteka honetan duzue test osoa eskuragarri. <http://www.rnld.org/lvt>
14. ikus 2.1.2. atala
15. Europako Hizkuntza Gutxituen eta Eskualdeko Hizkuntzen Gutuna ebaluatzen duen Adituen Komiteko partaideek, adibidez, 4-5 egun ematen dituzte herrialde bakoitzean hango hizkuntzen egoera behatzen.
16. ikus 2.1.2. atala

### **BIBLIOGRAFIA**

- AIATSIS (2005). National Indigenous Languages Survey 2005. <http://arts.gov.au/sites/default/files/pdfs/nils-report-2005.pdf>
- Altuna, O. eta Basurto, A. (2013). *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Azpiroz, U. (2010). Funtzioak. <https://sites.google.com/a/emun.com/hiznet-sakontze-egitasmoa-urko/discussion/faxmachine>
- Bourhis, R., Giles, H., eta Rosenthal, D. (1981). Notes on the construction of a subjective vitality questionnaire for ethnolinguistic groups. *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 2:145-55.
- Crystal, D. (2001). *Language Death*. London: Penguin Books.
- Dwyer, A.M. (2011). Tools and techniques for endangered-language assessment and revitalization. *Vitality and Viability of Minority Languages. Trace Foundation Lecture Series Proceedings*, New York, October 23-24, 2009.
- Erize, X. (2009). *Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza: Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. Iruñea: Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Helbidea: [http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf)
- Ethnologue (2015). Australia. Helbidea: <http://www.ethnologue.com/country/AU>
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Helbidea: [http://www1.euskadi.net/euskara\\_adierazleak/udalak.apl?hizk=e](http://www1.euskadi.net/euskara_adierazleak/udalak.apl?hizk=e)
- Fishman, J.A. (1991). *Reversing Language Shift*. Bristol (Ingalaterra): Multilingual Matters.
- Florey, M. (2007). "Building tools for assessing linguistic diversity" in *International Conference on Austronesian Endangered Language Documentation* (Providence University, Taiwan)
- Giles, H., Bourhis, R.Y. eta Taylor, D.M. (1977). "Towards a theory of language in ethnic relations". In: Giles, H. (arg.) *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*. London: Academic Press.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2013). Euskararen egoera neurtzeko sistema bateratua adostuko dute Euskal Herriko erakundeek, egitasmoa Gipuzkoan abiatu ondoren. <http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DP-DOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/957/euskararen-egoera-neurtzeko-sistema-bateratua-adostuko-dute-euskal-herriko-erakundeek-egitasmoa-gipuzkoan-abiatu-ondoren>
- Hornberger, N.H. eta Pütz, M. (2007). Language Loyalty, Language Planning and Language Revitalization: Recent Writings and Reflections from Joshua A. Fishman. "*Journal of Sociolinguistics*", 11. zenbakia, 4. alea, 539-542 orr.
- Husband, C. eta Saifullah-Khan, V. (1982). The viability of ethnolinguistic vitality: some creative doubts. *Journal of Multilingual and Multicultural*



- Development* 3:195-205. *International Journal of the Sociology of Language* Special Issue on ethnolinguistic vitality. 1994, 108.
- IEEX (2011). Proyección de población para municipios. Helbidea: [http://estadistica.gobex.es/gestore/docs/varios/proyecciones/2011\\_21/proy\\_pob2011\\_2021.pdf](http://estadistica.gobex.es/gestore/docs/varios/proyecciones/2011_21/proy_pob2011_2021.pdf).
- Johnson, P., Giles, H. eta Bourhis, R. (1983). The viability of ethnolinguistic vitality: a response. *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 4:255-69.
- Landweer, M. L. (2012). Methods of language endangerment research: a perspective from Melanesia. *International Journal of the Sociology of Language* 214:153 – 178
- Lewis, M.P., eta Simons, G. (2010). Assessing Endangerment: Expanding Fishman's GIDS. *Revue Roumaine de Linguistique/Romanian Review of Linguistics* 2:103–120.
- Obiero, O.J., (2010). From Assessing Language Endangerment or Vitality to Creating and Evaluating Language Revitalization Programmes. *Nordic Journal of African Studies*, 19(4):201-226.
- Penman, R. (2014). *A comparison between EGIDS and UNESCO scales: a case study based on Sicilian*, Applied Language Documentation and Description ikastarorako. SOAS, University of London.
- RNLD (s.d.). *Assessing linguistic vitality (sarean)*. Helbidea: [http://www.rnld.org/assessing\\_vitality](http://www.rnld.org/assessing_vitality)
- Sallabank, J. (2011). *Week 4: Language vitality*, Applied Language Documentation and Description ikastarorako. SOAS, University of London.
- Sardiniako Eskualde Autonomoa (2006). Le lingue dei sardi: una ricerca sociolinguistica. Available at:[http://www.sardegna.cultura.it/documenti/7\\_88\\_20070514130939.pdf](http://www.sardegna.cultura.it/documenti/7_88_20070514130939.pdf)
- Skutnabb-Kangas, T. (2000). *Linguistic Genocide in Education—or Worldwide Diversity and Human Rights?*, New York: Lawrence Erlbaum.
- Soziolinguistika Klusterra (2011). *ARRUE proiektuaren ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak*. Andoain: Soziolinguistika [http://www.soziolinguistika.eus/files/ED2011\\_Emaitza\\_nagusien\\_txostena.pdf](http://www.soziolinguistika.eus/files/ED2011_Emaitza_nagusien_txostena.pdf)
- Sanchez Carrión, J.M. "Txepetx" (1987). *Un futuro para nuestro pasado: Claves de la recuperacion del Euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: Seminario de Filología Vasca.
- UNESCO Ad Hoc Expert Group on Endangered Languages. (2003). *Language Vitality and Endangerment: By way of introduction: UNESCO*. <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/endangered-languages/language-vitality>

UNESCO (2011). *UNESCO's Language Vitality and Endangerment Methodological Guideline: Review of Application and Feedback since 2003*. [http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/CI/CI/pdf/unesco\\_language\\_vitality\\_and\\_endangerment\\_methodological\\_guideline.pdf](http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/CI/CI/pdf/unesco_language_vitality_and_endangerment_methodological_guideline.pdf)

UNESCO (s.d.). *A methodology for assessing language vitality and endangerment*. Helbidea: <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/endangered-languages/language-vitality/>

Urbistat (s.d.). *Maps, analysis and statistics about the resident population: Demographic balance, population and family trends, age classes and average age, civil status and foreigners*

Helbidea: <http://www.urbistat.it/AdminStat/en/pt/demografia/popolazione/miranda-do-d-ouro/406/4>

Zarraga, A. et al. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. Helbidea: [http://www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/es\\_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA\\_ESKULIBURUA-azkena.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf)